



Haurren eta helduen barrea eragiten

ASTEASU ▶ Poxpolo, Mokolo eta konpainia eskualdeko pailazoen 'Zirkoa' emanaldia eskaini dute

IKUSLEAK ▶ Kantuan eta dantzan aritu dira haiekin batera kiroldegian elkartutako 180 bat lagun ▶ 6



I. TERRADILLOS



Poxpolo, Mokolo eta konpainia, atzo, Asteasuko kiroldegian. N. URBIZU



Gabonetako apaingarriak jasotzeko unea

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Herri, denda eta etxeetan ikusgai izan dira jaiotzak egunotan; askorentzat afizio bihurtu da horiek egitea ▶ 7

WWW.TOLOSALDEKO
HITZA.INFO ▶Liskarrak ugari
dira gauetan;
zer iruditzen?

Izugarria da Tolosan gertatzen ari dena. Ahoz aho dabilen gaia da, eta mundu osoak daki nor diren. Egin dezatela zerbait!

▶ XABI

Gezurra dirudi. Badirudi Madrilen eta hiri handietan gertatzen diren gauzak direla. Okerrrena, edo serioena da jakitea zergatik gertatzen ari den hau guztia.

▶ LORE

Guztiok dakigu nortzuk diren eta lotsagarria da horren aurrean babesik ez izatea, edonor izan baitaiteke erasotua. Adin txikikoak izateak ez die eskubiderik ematen nahi duten guztia egiteko, eta legeak hori babestea, gainera. Agian lege horren berrikusketa egin beharko litzateke. Konponbideak behar ditugu, eta azkar!

▶ TXAKUR

Egia da, bai, gero eta maizago gertatzen dira istiluak, eta ni, behintzat, nazkatuta nago Tolosan horrelakoak ikusteaz. Denok dakigu nortzuk diren, Udalak ere badaki eta, gainera, ez dira ezkutuka ibiltzen, hor egoten baitira Apeadero inguruan harropuztuta. Eta inork ez dituela salatzen? Nork nahi ditu 16-18 urte bitarteko drogaz lepo ibiltzen diren 20 gazte biolento bere atzetik? Ez dut uste gertaeraren bat ikusi duelako pertsona batek salatu behar dituenik, Udalak bere kabuz hartu behar litzuzke neurriak. Lehenbailehen zerbait egin beharra dago egoera hau gelditzeko; gehiegi luzatzen ari da eta azkenean zerbait larriagoa pasatuko da.

▶ MIKEL

Ba ohitu beharrean gaudela dirudi. Gero eta mota horretako zerri gehiago izango ditugulako gure artean. Eta ikusiko duzue frontoi bat berareiei 20 eurotako zerga ordaindu gabe erabiltzerik ez dugunean! Edo parke bateko txirristrak beraien jabegokoak bilakatzen direnean. Hau hasi baino ez da egin, eta egungo legea eskuetan, ezin dugu haien aurka ezer egin.

▶ XXX

Badakigu zein diren eta zergatik atxilotu nahi ez dituzten.

▶ XXX

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE



Urte berri on denori. Erretzaileei ere gauza bera opa nahi diet. Garai gogorak, ezta? Borrokatzeko beste arrazoi bat eman dute orain. Batek zioen moduan, «ni guztiaren aurka nago baina inor ez dago nire aurka». Debeku guztien kontra dagoenik ere bada.

Zer moduz? Promesak betetzen hasi al zarete? Nik ere egin ditut makinatxo bat, baina... HITZARAKO zutabea garaiz balditzea izan zen horietako bat. Alferrik, ordea, gaur

ere korrika eta presaka ari naiz. Aukeran, berandutxo.

Egutegi berria jarri dugu. Muxu berriak banatu genituen hogeita hamaika gauerdian, baina lehengo lepotik burua. Zaharrrak berri, alegia. Zorrak lehengoak dira. Urte berriek zahartu arren orritz pasatu eta ahazterik ez daudenak. Lagunak ere lehengoak. Berriak egiteko zoria izango da agian, baina esaera zahar batek dioen moduan «lagun berriak egin itzazu zaharrrak ahaztu gabe». Ez da arrazoi makala!

Urte berria zaharra baino hobea izan dabil esan izan da askotan. Hala opa nahi izan genien Amasakoeri baserriz baserri kopla kantuan aritu ginenean. Halaxe opa diot neure buruari, baina gutun hasiera eta orri amaieretan 2005 jarri ordez 2006 jar-

2006

tzen ohitzen naizenerako gabonak ospatzen arituko naiz. Urtea azkar edo oharkabean joatea seinale ona omen da. Urte txarra izan dugunean berria iristeko irrikitan egon ohi gara. Gu bai inozoak! Egun baten gorabeherak dena goitik behera aldatu ahal baleza... Urte berria ajearekin hasten dugun bitartean malo! Buruko minik gabeko urtea eskatzen dugu, ados, baina buruko min ukazina eragingo digun jarduna egiten dugu edanean! Xelebrea da pertsona! Urtearen azken eguna ospatzea zilegi ikusten dut urtea ona izan bada. Guk, ona izan edo txarra izan, berdin ospatzen dugu. Bazpare! Urte berriaren sarrera, ordea, zergatik ospatzen dugu? Zer datorkigun ez dakigula ospakizunetan sartzen gara. Zori onak guztio!

IRUDI ZAHARRA ▶



Txinpartako Erregeak opariak, ilusioa eta zoriona banatzen

Erredakzioa ▶ Aurten ere Tolosako Txinparta elkarteko Erregeek opariak eta, batez ere, poza, ilusioa eta zoriona banatu dute eskualdeko hainbat txokotan. Aspaldiko ohitura dute Erregetako kanpaina Txinpartakoek, eta urtetik urtera mantendu egin dute tradizio berezia. Halaxe azaltzen du Ander Letamendia *Txinparta, elkarbizitzarako eskola* lanaren egile eta Txinpartako bazkideak elkartearen 75. urteurrenaren harira idatzitako liburuan: «Lehen-

dabiziko urtean gaur egungo Iurreamendi egoitzara, garai hartako Santa Casa de la Beneficencia delakora joan ziren Erregeak bertako umeei opariak ematera. Ondoren, Iurreamendiko gainontzeko kideei ere iritsi zitzaizkien opariak, Andazarrateko tuberkulosiaren kontrako sanatoriokoei ere bai, eta baita Jesusen Zerbizariaren komunitateak bideratzen zuen Belate auzoko haurtzaindegiko umeei ere». 'TXINPARTA, ELKARBIZITZARAKO ESKOLA' LIBURUA

I. MARRAZKI LEHIAKETA >

Gure herriak, umeen begietatik

Jon, Ane, Amaia, Lucia, Rita, Asier, Iñigo, Erik, Oier, Uxue, Maria, Ainhoa, Ivan, Joseba, Lorea, Ainara, Nerea eta Imanol ere animatu dira beren herriari buruzkoak marrazki banatan kontatzera



Jon Eskisabel Guerrero (6 urte, Alegia). Gure lagun Jonek *Nire herria* jarrri dio izenburu Alegian buruz egindako lanari; bidegaria, jostailudenda, gozategia, arropa denda, frutategia eta besta marraztu ditu.



Ane Gurrutxaga Otermín (11 urte, Tolosa). Gabonak hartu ditu gaitzat Anek bere marrazkia egitekoan. Desonk ere badu hain inguruak: «Niri gustatuko litzaidake Kabalgata uretan egitea».



Amaia Garmendia (10 urte, Tolosa). Tolosako udaltoa marraztu du Amaiak. Hark ere badu desonk: «Kaleak gehiago garbitu, kutsadura gutxiago egoteko».



Lucia Berriain Telletxea (5 urte, Tolosa). Patsika poli bat marraztu du Luciak: «Gustatzen zait Tolosan borrik egotea», dio.



Rita Gonzalez (11 urte, Tolosa). «Tolosa nire herria da eta oso bukur egiten delako pozik nago. Denok zainitzen dugu. Marrazkioa zeren-plaza da», kontatu digu Ritak.



Asier Otegi Arruti (8 urte, Tolosa). Bere herriaren boko berri bat aukeratu du Asierrek marrazkirako. «Hau Ermita zaharra da, berriro egin dutena. Nire aita eta amarenkin jaten naz hara», azaldu digu.



Iñigo Agüero (8 urte, Ibarra). Ibarra bizi da Iñigo gure laguna, eta bere ebe ingurua jaso du HITZra ekarritako marrazkian. Halse dio: «Ibarrako frontoiak hau, eta atzeko eteetako bat nire etxea da».




Erik Muñagorri (8 urte, Ibarra). «Hau Ibarra da, eta han platen naiz nire lagunekin harrapaketara», azaldu digu Erik gure lagun ibartarrak egindako marrazkiaren atzealdean.



Oier Mixelena (9 urte, Tolosa). Bere marrazkiaren azalpena egin digu Oierrek: «Santa Maria eliza, udaletoa eta Uzturre mendia».



Uxue Ezeiza (6 urte, Tolosa). «Marrakzi hau Uzturre da. Niri gehien gustatzen zaidan mendia da. Mendirik poltiena da».



Maria Muñoz Ortiz de Zarate (9 urte, Tolosa). «San Frantzisko, Gabonetan jarrri dituzten argiak asko gustatzen baitzait», kontatu digu gure lagun Ainhoak bere marrazkiarekin batera.



Ainhoa Inurtagoiena Goikoetxea (11 urte, Ibarra). «Niri gustatuko litzaidake Triangulo plazan jaitz eder bat egitea», kontatu digu gure lagun Ainhoak bere marrazkiarekin batera.



Ivan Jauregi (9 urte, Tolosa). Zerkausia eta haren inguruko bokoak (zuhia, Oria ibai, Uzturre atzean ikusten dela...) aukeratu ditu Ivanek bere marrazkirako.



Joseba Otxoa Oroz (7 urte, Ibarra). Gabonak marraztu ditu Josebak: «oporrak eta ilusioa» ditu gustukoaren egun horietan.



Lorea Senperena (5 urte, Albaltzisketa). «Olientzero opariak uztera dator denon ebera».



Ainara Aranburu Goikoetxea (8 urte, Anoeta) . «Hau nire herriaren baserri bateko ukulua da».



Nerea Eizaguirre Caminos (6 urte, Tolosa). «Nire herrian dauden gauzak: estropadak, Babarrun Festa, Inauterik eta nire etxea», azaldu digu Nereak bere marrazkian buruz.



Imanol Rodriguez (9 urte, Tolosa). «Santa Maria parrokia, lurte auzoa, Uzturre mendia, udaltoa eta Korreo kalea gustatzen zitakit».

ASTEASU ▶ KULTURA

INKESTA ▶ Beste inoiz ikusi al dituzu Poxpolo eta Mokolo?

HAIZEA IRAOLA
ASTEASU, 5 URTE



«Bai, polikiroldegian ikusi nituen. Mokolo gustatzen zait asko. Gaur ez dut dantzatu, ezta abestuko ere».

NORA LEKUONA
ZARAUTZ, 4 URTE



«Bai. Zarautzen ikusi nituen. Mokolo gustatzen zait gehiena. Ez dut dantzatu, lotsagatik, baina abestu bai».

HODEI IRAOLA
ASTEASU, 8 URTE



«Herrian ikusi nituen beste behin. Bi pailazoak gustatzen zaizkit, eta dantza eta abestu ere gustora egingo dut».

JULEN IRAZUSTA
ASTEASU, 8 URTE



«Ez da ikusten didudan lehenengo aldia, lehenengo urtean ere ikusi nituen. Bi pailazoak berdin gustatzen zaizkit».

EDU LEKUONA
ZARAUTZ, 8 URTE



«Zarautzen ikusi nituen. Poxpolo gehiago gustatzen zait, barrengarriagoa da. Haiekin batera abestu eta dantzatuko dut».

Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren saioa, zirkoko kontuekin

Hurrek ederki asko igaro zuten atzoko arratsalde pailazoekin batera, kantuan, dantzan eta algara artean



Poxpolo eta Mokolo pailazoak, Gabon-kantak abesten, atzo. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Asteasun aritu ziren atzokoan, ordu eta laurdenez, Poxpolo, Mokolo eta konpainia eskualdeko pailazoak umeengan eta 170 zentimetrotako haurren barreak eta algarak eragiten. Jendea barra-barra bildu zen *Zirkoa* izeneko saio hau jarraituz: 180 lagun inguru, hain zuzen.

Din Dan Don kantari atera ziren Poxpolo eta Mokolo taula gainera. Ondoren, zirkoko aur-

kezleak hasiera eman zion ikuskizunari, eta kolore biziak eta festa giroa izan ziren nagusi. Kiroldegiaren akustika onak ere lagundu zuen emanaldia adi-adi jarraitzen.

Horrela jarraitu zituzten umeek zein helduek Tolosaldeko pailazoan *Run-Run* diskoan entzun daitezkeen abestiak, eta baita *Zorionak* diskoan agertzen diren Gabon-kantak ere.

Udaz geroztik dabilta Poxpolo, Mokolo eta konpainia

Euskal Herrian hara eta hona emanaldiak eskaintzen. Zuzenean ikustea bezalakorik ez da, baina nahi izanez gero badute hainbat produktu etxean ikusteko aukera izateko: *Escola eta festa* deituriko DVDa. Disko berria ere laster izanen da entzungai.

Pailazoek beraiek HITZARI aitortu zioten bezala, beti etxean lan egitea gustukoago dute, «jendeak hobeto ezagutzen dituelako kantak, eta giroa orokorrean hobea delako».

TOLOSA ▶

Azoka lasaia, Eguberrietako gehiegikerien ondorio

Berrikuntzarik izan zen, hala ere: mendiola sagarrak, gazta berria eta tipula gorria kasu

PABLO ALBERDI

Lasaia izan zen atzoko azoka eguna. Egun hauetako gehiegikeriek isla izan zuten salmentetan eta, dirudienez, datozen asteotan ere hala jarraituko du joerak.

Hala ere, eskaintza zabala izan zen, eta baita hainbat berrikuntza ere: aurtengo lehenengo mendiola sagarrak 2 eurotan, gazta berria 14 eurotan, eta zuhaitza zerrenda luzea. Berdura plazan, beste artean, aurtengo lehenengo tipula gorriko landaretxoak izan ziren. Apaingarriko landareen postuetan udaberriaren zain daude produktu berriak aurkezteko.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Tipula	0,80	1,00
Krisanteak	4,00	12,00
Bertako produktuak		
Basarana	4,50	5,00
Irasagarra	3,00	6,00
Babarrunak	6,00	12,00
Ardigazta	12,00	14,00
Produktu ekologikoak		
Baraburiak	1,60	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

JAIOTZAK ▶



Afizioa. Orkatz Erbitirentzat afizio bilakatu da jaiotzak egitea. Irudian, aurten egin duena. JAIONE ASTIBIA



Tolosa. Ezbeharren bat jasan ohi du urtero Gernikako arbolan jartzen duten jaiotzak. I. TERRADILLOS



Mugimenduak. Errotak biraka, ahateak igerian, kanpaia joz dabilena... mugimenduak dira nagusi Peña Frascuelok eginkoan. I. T.



Aspaldikoak. 60 urte inguru ditu Malumbres dendan jarritakoak. I. T.

Gure txokoetako apaingarriak

Eguberrietan ikusgai izan diren jaiotzak gordetzeko unea iritsi da; askorentzat afizio bilakatu da horiek egitea

IÑIGO TERRADILLOS

Eguberriak amaitu dira eta, horrekin batera, herriak, dendak edota etxeak apaintzen izan ditugun jaiotzak kentzeko eta datorren urterako gordetzeko unea iritsi da.

Aspalditik datorkigun ohitura da jaiotza jartzearena; Tolo-

sako Malumbres arropa dendako erakusleihoan egun hauetan ikusi ahal izan denak, esaterako, 60 urte inguru ditu. Dendakoek azaldu dutenez, Tolosan erosi zuten, eta urtero urtero hori jarri izan dute dendan apaintzeko.

Kasu batzuetan afizio bilakatu da jaiotza egitearena. Leitzako Orkatz Erbitiren etxean beti-

danik jarri izan dute, baina duela urte batzuk berak egin eta jartzen du jaiotza. 15 urteko gazte honi txikitatik gustatu izan zaizkio, eta azken urteotan urte osoa igarotzen du materiala biltzen eta prestatzen. Bere etxean ikus daitekeen gela baten tamainako jaiotza-ren elementu guztiak bere eskuekin eginak dira. Zubiak eta

errotak, benetakoak bezala, egurrez egiten ditu, eta etxeak eta paretak harriarekin. Pertsonaiak, berriz, buztinezkoak dira, eta euren arropak paper berezi batekin eginak. Leitzarrak azaldu duenez, «Eguberriak amaitzean, pena handia ematen dit dena kendu eta gordetzea». Bestalde, datorren urterako herritar guztiak ikusteko aukera izan dezaten lekuren batean jartzea gustatuko litzaiokeela adierazi du. Halaber, Joxe Mari Ernardorena leitzarrak ere aspalditik egiten du, eta udaletxean ere izan da ikusgai bere jaiotza handia.

Tolosako Peña Frascuelo orain lau urte hasi zen zezenplazan taldekideek beraiek euren eskuekin eginiko jaiotza

jendaurrean erakusten. Bihar kenduko dute, eta arduradunek azaldu dutenaren arabera, jende ugari joan da hura ikustera.

Baina lokaletan, dendetan eta etxeetan jartzeaz gain, herrietako txokoetan ere egoten dira ikusgai. Tolosan, Gernikako arbolan jarri ohi dute urtero jaiotza, eta ezbeharren bat edo beste izan du askotan; aurtengoan, bi Errege Mago baino ez ziren ikusgai, Meltxorren irudia nonbait erre egin baitzuten.

Erregeak, gameluak, astoak, idiak, Jesus, Maria, Jose, zubiak, etxeak eta bestelakoak hurrengo Eguberriak arte agurtzeko unea, beraz, iritsi da. Orduan ere, hor izango ditugu txoko horien apaingarri.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Dagoeneko indarrean dagoen legearen arabera, lantegietan ezin da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzailentzat egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizue? Gogorregia al da legea? Edota are gogorragoa izan beharko luke? Zergatik? ▶

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Alegia. *Zeru garratzak* lana, Interruptus taldearekin. 19:00etan, Gaztetxean. 18. urteurrenaren baitan.

DEIALDIAK

Alegia. Eskuz binakako pilota txapelketa hasiko da laster. Txapelketaren nondik norakoak zehazteko bilerara deitu dute. Etzi, 19:00etan, Kultur Etxean.
Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkartearen asanblada, 11:00etan. Gaiak: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, 2005eko kontuak eta zuzendaritza taldearen berrikuntza partziala.
Ikaztegieta. Informatikako gaur egungo oinarriko beharrei aurre egiteko ikastaroa (sagua, artiboak gorde, CD grabaketak...) eskainiko dute bihartik hilaren 20ra bitarte, 18:30etik 20:30era.
Tolosa. Eguberrietako estropada antolatuko du Tolosaldeko Arraun Klubak, 11:30ean, Oria ibaian. Herritarrek animatzera joatera gonbidatu dituzte.
Tolosa. Errege Magoek La Jara Extremadurako etxea bisitatuko dute, 17:00etan. Txokolate jatea ere izango da.

Tolosa. Shanti Txapelketako finalak. 10:00etan hasita, Usabalen.

Tolosa. Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

Tolosa. AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako batzarra. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Bizkaian zehar antolatuko du mendiri irteera Alpino Uzturre elkarteak datorren iganderako, hilaren 15a: Alonsotegin hasi eta Alonsotegin amaituko dute ibilaldia. Dagoeneko izena



Hasi dira botatzen Ilarramendi frontoia

TOLOSA ▶ Itxuraldatuta ageri da egunotan Laskorain Ikastolaren ingurua (Oria-Araxes deituriko eremua, hain zuzen ere). Izan ere, Ilarramendi frontoia botatzen hasi dira. Lanak amaitutakoan, babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikiko dituzte eremu horretan, Eusko Jaurerriak eta Udalak sinatutako hitzarmenari jarraiki. Etxebizitza horiek iazko urriaren 21ean zozketatu zituzten, jendez gainezka zegoen Beotibar pilotalekuan. I. TERRADILLOS

eman daiteke elkartearen bertan (Gudari, 5. 943 65 27 89).

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak. Bihar arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

PROIEKZIOAK

Alegia. Argazki proiektzioa eta

tertulia Manuel Joubert mendizalearekin, Alaskako McKinley (6.192 metro) mendia iren goerari buruz. Etzi, 21:00etan, Gaztetxean. 18. urtemugaren ekitaldien barruan.

ZINEMA

Leitza. *Aupa Etxebeste!* filma. 19:30ean, zinema aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

Bihar

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Argizirin aitallaldia.* Xorroxin irratia saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 226.a (2005eko abenduaren 30a).
Orrialdeak. 20.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Galtzaundiren Eskerrak Zuri aipamenak.
Beste gaiak. 2005eko gertakariak begirada bat, Harkaitz Canorekin solasean, Mikel Telleria idazle tolosarra, Zine-klub taldea, San Silbestre Elkartasun Krosa...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 247.a (2005eko abenduaren 30a).
Orrialdeak. 30.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. *Erre ala ez, horra hor kokxa.*
Beste gaiak. Gabonak, Zizurkilgo historia jasotzen duen liburua, Leire Zubeldia zizurkildarra Teodoro Hernandorena lehiaketako irabazlea, Amasa-Villabonako Subijana berritzeko lanak...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶



URTE ASKAOAN
Osaba Jose Mari (Alegia). Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!